



NAFARROAKO PARLAMENTUAK 2024ko NAFARROAREN EGUNA OSPATZEKO EKITALDIAK (11-24/PTCC-00027)

EGITARAUA

2024ko azaroaren 27an

- Nafarroako armarridun ikur-oihala paratzea Parlamentuaren egoitzaren fatxadan.
- 11:00etan: Nafarroako Parlamentuaren Domina ematea osoko bilkuren aretoan.

Mahaiak eta Eledunen Batzarrak onetsi behar dute Parlamentuaren Domina emateko espedientea.

Programa:

- Nafarroako ereserkia, Tronpeta eta Tinbal Bandak joa.
- Nafarroako Parlamentuko lehendakari Unai Hualde Iglesias jaunaren hitzak.
- Mahaiko idazkariak Eledunen Batzarrak onetsitako adierazpen instituzionala eta Domina Emateko Erabakia irakurtzea.
- Parlamentuko lehendakariak domina ematea.
- Musika-emanaldia.
- Sarituen hitzak.
- Tronpeta eta Tinbal Bandaren emanaldia.
- Ekitaldiaren amaiera eta talde-argazkia.

2024ko azaroaren 27an:

- 13:00etan: Nafarroako Parlamentuan erretiroa hartu duten funtzionarioei omenaldia, erakunde-aretoan.

2024ko abenduaren 2an:

- 19:30ean: Danserie Ensemble taldearen kontzertua.

Linguae Vasconum Primitiae 1545. Euskaraz idatzitako lehen liburua den horretako 19 poemak osatzen dute kontzertua; Bernart Etxeparek idatzi zituen, eta garai hartako musikarekin abestuko dira.

1. eranskinean dago jasota gonbidatu-zerrenda. Edonor bertaratzen ahal da kontzertura, edukiera bete arte.

2024ko abenduaren 3an:

- Nafarroako armarridun ikur-oihalak paratzea Parlamentuaren egoitzaren fatxadan.
- Parlamentuaren egoitzaren fatxada gorriz argizatzea (abenduaren 3ko gauean).

2024ko abenduaren 4an eta 5ean:

- Ateak zabaltzeko eguna (abenduaren 4an, asteazkenean, eta abenduaren 5ean, ostegunean, 16:30ean, 17:30ean eta 18:30ean).

Iruñean, 2024ko azaroaren 13an